



NEWSLETTERA - 2026ko APIRILA



Udal Aukerak

Zure udalerrirako aukerak

Deialdiak, dirulaguntzak eta finantzazio-aukerak biltzen dituen hileroko buletina, euskal toki-erakundeentzat

Hileko nabarmenena

Energia berriztagarrien bidez autokontsumorako energia elektrikoa sortzeko eta kontsumo termikoak elektrifikatzeko laguntzak (Energiaren Euskal Erakundea-Eusko Jaurlaritza)
Aurrekontua: 80.000.000 €

Laster ixtekoa

Enplegurako orientazio-zerbitzuak (Lanbide-Eusko Jaurlaritza)
Epe-amaiera: 2026/04/26

EB

Europar Batasunaren programa eta ekimenetan parte hartzea (Bizkaiko Foru Aldundia)
Toki-erakundeek Europako proiektuak prestatzeko eta aurkezteko laguntza

Newsleterraren aurkibidea

Zenbaki honek Udal Aukerak zerbitzuaren deialdi aktibo nagusiak, Europako aukerak eta gomendio teknikoak jasotzen ditu. Nabigatu ataletan zehar zure udalerriri gehien egokitzen zaiona aurkitzeko.



Hileko nabarmenena

Aldi honetan zuzkidura handiena eta eragin handiena izan duen deialdi garrantzitsuena.



Aukerak, premiazkoak eta hurbilekoak

Berehalako epeak dituzten deialdiak eta datozen asteetan irekiko diren teaserrak.



Gomendio teknikoa

Udal Aukerak lantaldearen berariazko aholkua, eskaeretan arrakasta-tasa hobetzeko.



Deialdiak

Fitxa osoak, erakunde, epe, aurrekontu eta hartzaileekin, izapideak errazteko.



Zerbitzua eta kontaktua

Udal Aukerak-en newsletterari, deialdien bildumari eta baliabideei buruzko kontsultak egiteko, harremanetan jar zaitezke zerbitzuko taldearekin.



HILEKO DEIALDI NABARMENENA

Autokontsumorako eta kontsumo termikoen elektrifikaziorako elektrizitate-sorkuntza (EEE 2026)

Energiaren Euskal Erakundeak (Eusko Jaurlaritzak) toki-erakundeentzako zuzkidura handieneko deialdietako bat argitaratu du. Udal-instalazioetan elektrizitate berriztagarria sortzeko, autokontsumorako eta elektrifikazio termikorako jarduketak finantzatzen ditu.

80 M€

Zuzkidura guztira

Energia berriztagarrien proiektuetarako laguntza-programa

% 50era arte

Laguntzaren intentsitatea

Diruz lagundu daitekeen kostuaren gaineko gehieneko finantzazio-ehunekoa

Irailak 30

Eskaera egiteko epea

2026ko irailaren 30era arte edo agortu arte



Gomendatutako ekintza: Kontsultatu fitxa osoa [Deialdiak](#) atalean edo [Udal Aukerak](#) atarian, eta baloratu udal eraikin eta instalazioetan autokontsumorako eta elektrifikaziorako proiektuak.



AUKERAK

Galdu behar ez dituzun bi aukera

Auditoretzak eta energia-azterlanak toki-erakundeetan (EEE - Eusko Jaurlaritza)

Udalerrietako eraikin eta instalazio publikoetako energia-jasangarritasuna hobetzeko azterlanak eta auditoretzak egiteko laguntzak.

- **Aurrekontua:** 5.000.000 €
- **Epe-amaiera:** 2028/10/17 edo agortu arte
- **Hartzaileak:** Euskadiko toki-erakundeak

Enplegurako orientazioa (Lanbide - Eusko Jaurlaritzak)

Lanbiderekin lankidetzan enplegurako orientazio-ekintzak eta -zerbitzuak garatzeko dirulaguntzak.

- **Aurrekontua:** 7.873.206 €
- **Epe-amaiera:** 2026/04/2026
- **Hartzaileak:** Erakunde publikoak eta pribatuak (betekizun espezifikoekin)



ADI! LASER ITXIKO DIREN EPEAK



Premiazko deialdiak – ekin orain

Hurrengo deialdiak datozen egunotan amaituko dira. Zure udalerrriak baldintzak betetzen baditu, kontsultatu informazio-fitxa eta planifikatu aurkezpena epearen barruan.

→ **6 egun barru itxiko da – Eguzki instalazioak udalerrietan (Gipuzkoa)**

Energia-komunitateei lotutako autokontsumo kolektiboan instalazio fotovoltaikoak ezartzeko dirulaguntzak.

Epe-amaiera : 2026/04/13

→ **10 egun barru itxiko da – Jasangarritasun energetikorako laguntzak (Araba)**

Udalerrri txikietan energia-jasangarritasuna hobetzeko jarduketetarako finantzaketa.

Epe-amaiera : 2026/04/17

→ **8 egun barru itxiko da – Proiektu esperimentalak (Gipuzkoa)**

Lurraldeko erronka ekonomiko eta sozialei aurre egiteko proiektu berritzaileentzako laguntza.

Epe-amaiera : 2026/04/15

→ **10 egun barru itxiko da– Landa-bideak (Gipuzkoa)**

Udal landa-azpiegiturak hobetzeko eta mantentzeko dirulaguntzak.

Epe-amaiera : 2026/04/17

→ **13 egun barru itxiko da – Landa-zerbitzu anitzak (Araba)**

Landa-eremuetan oinarrizko zerbitzuak ezartzeko eta hobetzeko laguntzak.

Epe-amaiera : 2026/04/20



GOMENDIO TEKNIKOA

Hileko aholkua: Inpaktu handiena duten deialdiak lehenetsi.

Zein laguntzatarara bideratu behar dituzu zure baliabideak?

Deialdi guztiek ez dute balio estrategiko bera udalerrarentzat.

- 1 Diru-zuzkidura garrantzitsua**
Finantzazio-bolumen handieneko deialdiak lehenetsi.
- 2 Udalean duen eragina**
Gaitasun eraldatzailea duten proiektuak hautatu.
- 3 Lerrokadura estrategikoa**
Udalaren lehentasunekin bat datorren baloratu.

Gure gomendioa

Lehentasun-irizpideak aplikatu baliabide teknikoak optimizatzeko, eta ahalegin handiena egin inpaktu handiena, lerrokadura estrategiko onena eta gauzatzearen benetako bideragarritasuna duten deialdietan. Eskaera bat prestatzen hasi aurretik, bere potentziala baloratu finantzaketari, udal eraldaketarako gaitasunari eta beharrezko baliabideei dagokienez, eta itzulera txikiko deialdietan ahaleginak sakabanatzea saihestu.

 eudel@eudel.eus

 944231500



[DEIALDIAREN FITXA IKUSI](#)

Gipuzkoako toki-erakundeek eta haien menpeko erakundeek antolatutako ikuskizun eszenikoak eta musikalak aire zabaleko espazio publikoetan gauzatzeko dirulaguntzak (Kale Kultura).

Deskribapena

Gipuzkoako toki-erakundeek eta haien menpeko erakundeek antolatutako ikuskizun eszenikoak eta musikalak aire zabaleko espazio publikoetan gauzatzeko dirulaguntzak (Kale Kultura).

Hartzaileak

Gipuzkoako toki-entitateak eta haien menpeko erakundeak

Funtsezko datuak

Erakundea: KULTURA, LANKIDETZA, GAZTERIA
ETA KIROL DEPARTAMENTUA - GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA

Epea : 2026/05/29

Aurrekontua: 150.000 €



[DEIALDIAREN FITXA IKUSI](#)

Tokiko energia komunitateei lotutako autokontsumo kolektiboko araubideko udal-estalkietako edo/eta estalki pribatuetako eguzki-instalazio fotovoltaikoak ezar daitezzen sustatzeko gauzazko dirulaguntzak.

Deskribapena

Gipuzkoako Lurralde Historikoan 10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrri edo lurralde-eremuetan, tokiko energia komunitateei lotutako autokontsumo kolektiboko araubideko udal estalkietako edo/eta estalki pribatuetako eguzki-instalazio fotovoltaikoak ezar daitezzen sustatzeko gauzazko dirulaguntzak.

Hartzaileak

Gipuzkoako Lurralde Historikoko 10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrriak edo lurralde-eremuak.

Funtsezko datuak

**Erakundea : Jasangarritasun Saila -
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA**

Epea : 2026/04/13

Aurrekontua: 481.500 €



[DEIALDIAREN FITXA IKUSI](#)

Energia jasangarritasunerako ekintzak bultzatzeko laguntza-lerroaren 2026rako deialdia

Deskribapena

Energia jasangarritasunerako ekintzak bultzatzeko laguntza-lerroa.

Hartzaileak

25.000 biztanle baino gutxiago dituzten Arabako Lurralde Historikoko udalerriak eta kontzejuak.

Funtsezko datuak

Erakundea : GARAPEN EKONOMIKOA ETA BERRIKUNTZA SAILA - ARABAKO FORU ALDUNDIA

Epea : 2026/04/17

Aurrekontua: 350.000 €



[DEIALDIAREN FITXA IKUSI](#)

Proiektu esperimentalak: Gipuzkoak dituen erronkei erantzuna emateko planteatzen diren proiektu berritzaileak, eragile ekonomiko eta sozialek bultzatutakoak.

Deskribapena

Gipuzkoaren eraldaketa sozial eta ekonomikorako lurraldeko eragileen dinamizazio prozesua aktibatzea du helburutzat. Zenbait esparrutan eragingo duten proiektu praktikoentzako laguntzaren bitartez, eta izaera berritzailea izanik, erreferentzia izan daitezkeenak eta eragin biderkatzailea izango dutenak. Laguntza-ildo horren bidez, proiektuak eta ahaleginak lurraldearen lehentasunekin lerrokatu nahi dira, eta, horrela, erronkei aurre egin diezaieketen irtenbide berrien garapena eta hedapena bizkortu.

Hartzaileak

Gipuzkoako Lurralde Historikoan oinarrietan jasotako erronken barruan sartzen diren proiektu esperimentalen bat sustatzen duten unibertsitateek, lanbide-heziketako zentroek, elkarteek, fundazioek, enpresa publiko eta pribatuek, udalek, mankomunitateek, garapen agentziek eta/edo interes ekonomikoko taldeek.

Funtsezko datuak

Erakundea : Estrategia Zuzendaritza Nagusia - GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Epea : 2026/04/15 (12:00etan)

Aurrekontua: 420.000 €



[DEIALDIAREN FITXA IKUSI](#)

Gipuzkoak dituen erronka nagusiei buruzko esplorazio-proiektuak.

Deskribapena

Esplorazio-proiektuen ezaugarria da proiektu berritzaileak direla, Gipuzkoak dituen erronkei aurre egiteko ikuspegi berriak dituztenak. Eraldatzeko ahalmen handia dute, eta erronka horien eremuan eragina izango duten emaitzak sortzea espero da. Hala ere, ez daude behar bezain helduak beren hedapenean eta esperimenez, inpaktu potentziala lor dezaten.

Hartzaileak

Gipuzkoako Lurralde Historikoan oinarrietan jasotako erronken barruan sartzen diren proiektu esperimentalen bat sustatzen duten unibertsitateek, lanbide-heziketako zentroek, elkarteek, fundazioek, enpresa publiko eta pribatuek, udalek, mankomunitateek, garapen agentziek eta/edo interes ekonomikoko taldeek.

Funtsezko datuak

Erakundea : Estrategia Zuzendaritza Nagusia - GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Epea : 2026/04/15 (12:00etan)

Aurrekontua: 120.000 €



[DEIALDIAREN FITXA IKUSI](#)

Gipuzkoako Lurralde Historikoko landa-bideetarako laguntzen oinarri arautzaileak aldatzea eta 2026ko deialdia.

Deskribapena

Gipuzkoako Lurralde Historikoko landa-bideetarako laguntzak.

Hartzaileak

Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalek eta tokiko erakunde txikiek (landa-bideen titularrak edo bideen erabilera publikoa egiaztatzen dutenak) jaso ahal izango dituzte oinarri hauetan erregulatutako laguntzak.

Funtsezko datuak

Erakundea: LURRALDE OREKA BERDEKO DEPARTAMENTUA - GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Epea : 2026/04/17

Aurrekontua: 1.300.000 €



[DEIALDIAREN FITXA IKUSI](#)

Gipuzkoako Lurralde Historikoko landa-garapeneko proiektuetarako dirulaguntzen 2026ko deialdia.

Deskribapena

Dirulaguntzen helburua da Gipuzkoako Lurralde Historikoko landa-eremuen garapen integrala eta ekonomia bultzatzen laguntzea, garatzen ari diren edo garatu nahi diren jardueren ekonomia eta ingurumen errendimendua hobetzeko, bereziki, nekazaritza ustiategietan, nekazaritza elikagaien ekoizpenaren merkaturatzea eta eraldaketa hobetzeko eta entitate eskatzaileei azpiegiturak eta bitartekoak emateko, Gipuzkoako landa-eremuetan proiektuak garatzeko helburuarekin.

Hartzaileak

Laguntza horien entitate onuradunak honako hauek izango dira :

- a) Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalak eta toki-erakunde txikiak.
- b) Gipuzkoako Lurralde Historikoko Landa Garapeneko Elkarteak (LGE).
- c) Lehen sektoreari eta landa eremuko biztanleei zerbitzuak ematea helburu duten eta proiektuak Gipuzkoako Lurralde Historikoan egiten dituzten nekazaritza elkarteak eta kooperatibak.

Funtsezko datuak

Erakundea: LURRALDE OREKA BERDEKO DEPARTAMENTUA - GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Epea : 2026/04/17

Aurrekontua: 800.000 €



[DEIALDIAREN FITXA IKUSI](#)

Arabako kuadrilletan enplegurako prestakuntza emateko laguntzen deialdia 2026ko ekitaldirako.

Deskribapena

Arabako kuadrilletan enplegurako prestakuntza emateko laguntzen deialdiaren xedea da Arabako kuadrillek prestakuntza ekintzak egin ditzaten bultzatzea eta sustatzea, biztanle aktiboen (lanean ari direnen zein lanik ez dutenen) gaitasunak eta kualifikazioa hobetzeko eta gure ekonomiaren lehiakortasuna areagotzeko.

Hartzaileak

Arabako Lurralde Historikoko kuadrillak izango dira onuradunak, salbu eta Vitoria-Gasteizko Kuadrilla.

Funtsezko datuak

Erakundea: ENPLEGUA, MERKATARITZA, TURISMOA ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA - ARABAKO FORU ALDUNDIA

Epea : 2026/04/17

Aurrekontua: 127.472 €



[DEIALDIAREN FITXA IKUSI](#)

Ekonomia zirkularren arloko jarduketetarako dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta 2026ko deialdia:

Deskribapena

Hondakinak kudeatzeko esparruan ekonomia zirkularra bultzatzeko jarduketak, 2019-2030 Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorren (GHHKPO) arabera.

Hartzaileak

Gipuzkoako Lurralde Historikoko entitate hauek eskura ditzakete dirulaguntzak:

- a) Gipuzkoako udalak.
- b) Gipuzkoako Lurralde Historikoko hondakinen mankomunitateak.
- c) Helbide bat Gipuzkoako Lurralde Historikoan duten eta bertan jarduten duten irabazi-asmorik gabeko erakundeak, kooperatibak barne.
- d) Gipuzkoako Lurralde Historikoan jarduten duten merkataritza-sozietateak eta kooperatiba-sozietatearen forma duten enpresak, betiere jarduera lurralde horretan garatzen badute.
- e) Helbide fiskala Gipuzkoan duten langile autonomoak.

Funtsezko datuak

**Erakundea: JASANGARRITASUN
DEPARTAMENTUA - GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA**

Epea : 2026/04/22

Aurrekontua: 1.130.000 €



[DEIALDIAREN FITXA IKUSI](#)

Landako askotariko zerbitzuak eta herritarrentzako bestelako zerbitzuak ezarri, zabaldu eta hobetzeko bideratutako dirulaguntzak norgehiagoka bidez emateko deialdia onestea.

Deskribapena

Landa-eremuan merkataritzak betetzen duen funtzio soziala sustatu nahi da, landa-eremuko askotariko zerbitzu horiek ezartzen lagunduz.

Hartzaileak

Arabako Lurralde Historikoko toki-erakundeak eta pertsona fisiko edo juridiko pribatuak izan daitezke dirulaguntza horien onuradun. Inola ere ez dira diruz lagunduko 20.000 biztanletik gorako udalerrietako jarduketak.

Funtsezko datuak

Erakundea : LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA - ARABAKO FORU ALDUNDIA

Epea: 2026/04/20

Aurrekontua: 98.000 €



[DEIALDIAREN FITXA IKUSI](#)

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoarekin lankidetzan, enplegurako orientazio-ekintzen eta orientazio-zerbitzuen garapena finantzatzeko dirulaguntzak.

Deskribapena

Enplegurako orientazio-ekintzen eta orientazio-zerbitzuen garapena finantzatzeko dirulaguntzak.

Hartzaileak

17. artikuluan ezarritako baldintza orokorrak betetzen dituen edozein pertsona fisiko edo juridiko, publiko edo pribatu. Inolaz ere ezingo dira erakunde onuradun izan tokiko erakundeak edo haien mendekoak, baldin eta Lanbideren finantzaketan parte hartzen badute enplegurako orientazioaren arloan, tokiko enplegu-planen barruan oraingoa ez den beste laguntza batzuen bidez, eta haien finantzabidea bateraezina bada. Erakundeek, gutxienez, 24 hilabeteko esperientzia egiaztatua izan beharko dute, 2018ko urtarrilaren 1etik 2025eko ekainaren 30era bitartean metatua eta denboran gainjarri gabe.

Funtsezko datuak

Erakundea: LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOA - EUSKO JAURLARITZA

Epea : 2026/04/26

Aurrekontua: 7.873.206 €



[DEIALDIAREN FITXA IKUSI](#)

Adinberri-Hariak programaren esparruko dirulaguntzak emateko 2026ko deialdia.

Deskribapena

Adinberri-Hariak: nahi ez den bakardadeen prebentziora eta hari aurre egitera bideratutako tokiko ekosistemak bultzatzea.

Hartzaileak

Diruz lagundu daitekeen lerro mota bakoitzerako definitzen dira hartzaileak, baina guztietan sartzen dira udalak, tokiko erakunde txikiak edo mankomunitateak.

Funtsezko datuak

Erakundea: ZAINKETA ETA GIZARTE POLITIKETAKO DEPARTAMENTUA - GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Epea: 2026/04/27

Aurrekontua: 312.000 €



[DEIALDIAREN FITXA IKUSI](#)

Bizkaiko Lurralde Historikoko 7.000 biztanle edo gutxiagoko udalek 2026ko ekitaldirako hirigintza-plangintza berrikusteko dirulaguntza.

Deskribapena

Bizkaiko Lurralde Historikoko 7.000 biztanle edo gutxiagoko udalek 2026ko ekitaldirako hirigintza-plangintza berrikusteko dirulaguntza.

Hartzaileak

Bizkaiko Lurralde Historikoko 7.000 biztanle edo gutxiagoko udalak.

Funtsezko datuak

Erakundea: Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Saila - BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Epea: 2026/10/15

Aurrekontua: 1.200.000 €



[DEIALDIAREN FITXA IKUSI](#)

Bizkaia adin guztientzako lurralde bihurtzen lagunduko duten toki-entitateen proiektuetarako 2026rako dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdi publikoa, Bizkaiko Lurralde Historikoan.

Deskribapena

Osasunaren Mundu Erakundearen metodologian oinarritutako «Hiri Adeitsuak Adinekoekin» Proiektua (OMEren Proiektua, aurrerantzean) Bizkaiko Lurralde Historikoan ezartzeko sustapena egiteko 2026rako lehia askearen araubideko dirulaguntzen deialdi publikoa.

Hartzaileak

Euskadi Lagunkoia Udalerrien Sareari eta OMEren Hiri Adeitsuen Munduko Sareari atxiki zaizkion edo, atxikita ez badaude, atxikitzeko eskaera egin duten Bizkaiko Lurralde Historikoko udal, mankomunitate zein udal partzuergoak, baldin eta beren lurralde-eremuan OMEren proiektua ezartzeko erabakia hartu badute edo ezartzen hasi badira.

Funtsezko datuak

Erakundea: GIZARTE EKINTZA SAILA - BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Epea: 2026/05/25

Aurrekontua: 200.000 €



[DEIALDIAREN FITXA IKUSI](#)

Aurreikusi ezin diren egoeretan toki-erakundeak finantzatzeko gai ez diren ezusteko eta larrialdiko obrei aurre egiteko dirulaguntzak

Deskribapena

Premiazko ustekabeko gastuak eta larrialdiko obrak finantzatzeko dirulaguntzak ematea da deialdiaren helburua.

Hartzaileak

Arabako Lurralde Historikoko kuadrillak, udalak (Vitoria-Gasteizkoa izan ezik) eta kontzejuak.

Funtsezko datuak

Erakundea: Lurralde Oreka eta Lurralde Antolamenduaren Saila – ARABAKO FORU ALDUNDIA

Epea: 2026/12/31 edo aurrekontua agortu arte.

Aurrekontua: 300.000 €



[DEIALDIAREN FITXA IKUSI](#)

Euskadiko toki-administrazio publikoaren energia-jasangarritasuna hobetzeko azterlanak eta auditoretzak egiteko laguntzak

Deskribapena

Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean dauden instalazio eta eraikin publikoetan energia aurreztea eta efizientzia lortzea eta energia berriztagarriak erabiltzea helburu duten ekintzak identifikatu eta sustatzeko, argitara eman da Euskadiko toki-administrazio publikoaren energia-jasangarritasuna hobetzeko azterlanak eta auditoretzak egiteko laguntza-programa hau.

Hartzaileak

Kontzejuak, ermandadeak, administrazio-batzarrak eta eremu txikiagoko bestelako lurraldeko toki-erakundeak; udal-erri-mankomunitateak, Arabako Lurralde Historikoko kuadrillak eta bestelako toki-erakundeak, toki-araubideko oinarrizko legerian eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legean ezarritakoarekin bat; toki-erakunde horiei lotutako edo haien mendeko erakunde publikoak; udal-enpresa publikoak, baldin eta atal honetan aurreikusitako erakundeek horien kapital sozialean duten zuzeneko nahiz zeharkako partaidetza % 50etik gorakoa bada; fundazioak, baldin eta fundazioaren patronoa toki-erakunde bat bada, edo haren patronatua, nagusiki, toki-erakunde ordezkariez osatuta badago; partzuergoak eta mota guztietako gainerako erakunde instrumentalak, baldin eta nagusiki toki-kapital publikoaren partaidetza badute edo haien posizio nagusia toki-erakunde batena bada.

Funtsezko datuak

**Erakundea: ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA-
Eusko Jaurlaritza**

Epea: 2028/10/17 edo aurrekontua agortu arte

Aurrekontua: 5.000.000 €



[DEIALDIAREN FITXA IKUSI](#)

Energia berriztagarrien bidez autokontsumorako elektrizitatea sortzeko eta kontsumo termikoak elektrifikatzeko laguntzak

Deskribapena

EAEen energia berriztagarri elektrikoen hedapena sustatze aldera, programa honen xedea da energia berriztagarrien bidez autokontsumorako elektrizitatea sortzeko eta kontsumo termikoak elektrifikatzeko jarduketak egitea.

Hartzaileak

Kontzejuak, ermandadeak, administrazio-batzarrak eta lurraldeko eremu txikiagoko beste toki-erakunde batzuk, udalerrriak, udalerrien mankomunitateak, Arabako Lurralde Historikoko kuadrillak eta EAEko beste toki-erakunde batzuk, toki-araubideari buruzko oinarrizko legerian eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legean ezarritakoaren arabera.

Funtsezko datuak

**Erakundea: ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA-
Eusko Jaurlaritza**

Epea: 2026/09/30 edo aurrekontua agortu arte

Aurrekontua: 80.000.000 €



[DEIALDIAREN FITXA IKUSI](#)

Europar Batasunaren programa eta ekimenetan parte hartzea sustatzeko dirulaguntzak

Deskribapena

Dirulaguntzen xede izango dira Bizkaiko 150.000 biztanletik beherako udalei edo udal horiek parte hartzen duten elkarteei laguntza teknikoa eta kanpoko aholkularitza ematea, baldin eta laguntza eta aholkularitza horien helburua bada 2025eko azaroaren 1etik 2026ko urriaren 31ra bitartean Europar Batasuneko programa eta ekimenetan proiektuak aurkeztea.

Hartzaileak

Bizkaiko 150.000 biztanletik beherako udalak; haien udal-erakunde autonomoak eta udal-empresa publikoak; Bizkaiko 150.000 biztanletik beherako udalek parte hartzen duten hurrengo elkarteak: Bizkaiko mankomunitateak, Bizkaiko «Behargintzak» Enplegurako Laguntzarako Zentroak, Bizkaiko Federazioa eta Landa Garapeneko Elkarteak, Bilbo-Bizkaia 2030 Turismo Estrategian aintzatetsitako Bizkaiko eskualdeko turismo-kudeaketako erakundeak (Gorbeialde, Jata Ondo, Urkiola, Urremendi, Enkartur eta Lea Artibai Fundazioa).

Funtsezko datuak

Erakundea: Ogasun eta Finantza Saila – BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Epea: 2026/10/31 (13:30ean) edo aurrekontua agortu arte

Aurrekontua: 60.000 €



Hurrengo zenbakira arte

Eskerrik asko Udal Aukerak-en hilabetekaria irakurtzeagatik. Gure taldeak hilero lan egiten du zure udalerrirako finantzaketa- aukera garrantzitsuenak eskaintzeko, azkar eta segurtasunez jarduteko beharrezko informazioarekin.

Zuzeneko harremana

www.eudel.eus/udalaukerak

eudel@eudel.eus

944 23 15 00

Ercilla kalea 13, 48009 Bilbo

Udal Aukerak EUDEL-Euskadiko Udalen Elkartearen zerbitzua da.

Eskubide guztiak erreserbatuta. Buletin honetan baja emateko, idatzi adierazitako helbide elektronikora.

Jarrai gaitzazu eta partekatu buletina

Partekatu buletina zure inguruko beste teknikari eta udal-arduradun batzuekin. Zenbat eta udal gehiagok eskuratu hemengo informazioa, orduan eta eragin handiagoa izango du lurraldean.



Eskaneatu kodea, deialdi eta fitxa eguneratuen atari nagusira sartzeko.



Harpidetza

Izena eman newsletterra jasotzeko.



UDAL AUKERAK ZERBITZUA



Zer da Udal Aukerak?

Udal Aukerak EUDEL-en zerbitzua da, Euskadiko toki-erakundeei zuzendutako finantzaketa-aukerak identifikatu eta zabaltzera bideratua, eta Autonomia Erkidegoko, Estatuko eta Europako dirulaguntzen deialdiei eta finantzaketa-programei buruzko informazio eguneratua ematen du.

Zer eskaintzen dugu?

EAEko toki-erakundeentzat garrantzitsuak diren finantzaketa-deialdiak aurkitzea eta sistematikoki biltzea.

Informazioa

Deialdi bakoitzaren funtsezko alderdiak laburbiltzen dituzten (hartzaileak, xedea, epeak eta baldintzak) informazio-fitxak, newsletterrak eta dokumentu-baliabideak egitea eta argitaratzea,

Zabalkundea

Deialdien biltegia aldizka eguneratzea eta informazio-komunikazioak bidaltzea, finantzaketa-aukerak errazago eskuratzeko.

